

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Karlos III.a Nobilearen Gurutzea eman die bost nafarri

*M<sup>a</sup> Victoria eta Encarnación Flamarique jotariak, Ascensión Jiménez sukaldaria, Jesús María Muneta musikagilea eta Ángel Ruiz de Erenchun abokatua dira gurutzea jaso dutenak.*

Martes, 11 de marzo de 2014

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak Karlos III.aren Gurutzea jarri die Foru Komunitatea euren jarduerarloan hedatzen eta Nafarroaren izen ona sortzen lagundu duten bost nafarri. M<sup>a</sup> Victoria eta Encarnación Flamarique jotariak, Ascensión Jiménez sukaldaria, Jesús María Muneta musikagilea eta Ángel Ruiz de Erenchun abokatua dira gurutzea jaso dutenak.



Barcina Lehendakaria, erdian, alboan (ezkerretik eskuinera) González, Ruiz de Erenchun, Jiménez eta Muneta dituela

[Mintzaldian](#), Barcina Lehendakariak zera azpimarratu du, saritu guztiek, "bizitzako ibilbide zabal eta emankorreak, ahaleginaren, dedikazioaren eta lorpen handiak eskuratzeko norberaren ekimenaren adibide mirezgarria eskaini digute". Gainera, nabarmendu du lorpenak ez direla mugatu bost sarituen eremu pertsonalera, baizik eta gizarte osora zabaldu direla, eta beste askok haien sormen bereziari, berritzeko nahiriari eta, azken finean, ekarpenari onura atera ahal izango diote gizarte hobea eraiki ahal izateko.

Ekitaldia Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan izan da, eta bertan izan dira Foru Komunitateko agintari nagusiak, besteak beste, Nafarroako Gobernuako kontseilariak, Alberto Catalán Parlamentuko lehendakaria eta Carmen Alba Gobernuaren Nafarroako ordezkaria. Sarituen senideak ere hantxe izan dira. Hala ere, ezin izan dute ekitaldira joan María Victoria eta Encarnación Flamariquek, baina Hermanas Flamarique jota-eskolako Carolina González zuzendariak izan dute ordezkari ekitaldian.

### Sarituak

[María Victoria eta Encarnación Flamarique Zaratiegui jotariak](#), "Hermanas Flamarique" izenez ezagutzen direnak, "Nafarroako jotaren adierazgarriak" izan direlako eta "energia eta emozioa" transmititu dutelako saritu dira. 1929. eta 1930. urtean jaio ziren, Tafallan, eta jotak abesten jardun ziren lehen emakumeak izan ziren. Haien abestiak Espainiako eta

Hispanoamerikako zenbait txokotara iritsi ziren.

[Ascensión Jiménez Esquíroz](#) sukaldari eta enpresariari buruz, Foru Gobernuak nabarmendu du tradizioa eta berrikuntza uztartzen jakin duela, eta estatuan zein nazioartean gaur egun Nafarroako sukaldaritzaren maila "modu erabakigarrian" handitzen lagundu duela. Tafallako Túbal jatetxea zuzentzen du eta hainbat sari jaso ditu, esate baterako, Nafarroako Enpresari Onenaren Saria (1999) eta Nafarroako Gastronomia Akademiaren Saria (2008).

[Jesús María Muneta Martínez de Morentin](#) konpositorea Larragan jaio zen 1939an, eta harreman "estua" mantendu izan du herriarekin. Teruelgo Musika Kontserbatorio Profesionalaren fundatzaileetako bat izan zen, 1978an, eta 2000tik Madrilgo San Fernando Arte Ederren Akademiako akademikoa da. Kultura Ministerioko Arte Ederretako Zilarrezko Domina (1989) eta Nafarroako Gobernuaren konposizioen bigarren saria (1990) lortu zituen.

Amaitzeko, Nafarroako Gobernuak [Ángel Ruiz de Erenchun Oficialdegui](#) abokatuaren lana saritu du, zuzenbidearen ezagutza eta aplikazioa bultzatu dituelako, elkarbizitzako sistemaren "funtsezko" oinarria eta aurrera egiteko eta gizartearen ongizatea lortzeko "ezinbesteko" bitartekoa delako. Iruñean jaio zen 1940an, eta abokatu eta irakasle aritu da lanean 50 urtez. Iruñeko Abokatuen Elkargoko dekanoa eta Nafarroako senatari autonomikoa ere izan zen.

### **Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzea**

Saria Foru Gobernuak sortu zuen 1997an, eta Nafarroaren aurrerapenean eta Nafarroaren izena kanpora hedatzen bereziki lagundu duten pertsona eta erakundeen lana nabarmendu eta eskertzen du.

Sorreraren dekretuak jasotzen duenez, gurutzeek Karlos III.a Noblearen izena hartu zuten, erregea Nafarroako erregeen artean jarrera baketsua eta adostailea izateagatik nabarmendu zena izan zelako, kulturaren eta artearen aldeko ekimenak bultzatu zituelako eta Europako gainerako errege-etxeekin bakean eta laguntasunean oinarrituko harremanak izan zituelako.

Galardoa Maltako gurutze bat da, besoak gorritz apainduta dituena, urrezko inguruekin, eta metal bereko zitori hori bana du beso bakoitzean. Erdian, Karlos III.a Noblearen irudi maiestatikoa du eta urrezkoak diren Nafarroako kateek apaintzen dute. Irudia Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordeta dauden erregearen argizarizko hainbat zigilutan agertzen da.

Atzealdean Nafarroako armari ofiziala du, "Comunidad Foral de Navarra" eta "Cruz de Carlos III el Noble de Navarra" hitzen gainean.

### **Galería de fotos**



Ascensión Jiménez Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzea jasotzen.



Jesús María Muneta Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzea jasotzen.



Ángel Ruiz de Erenchun Nafarroako Karlos III.a Noblearen Gurutzea jasotzen.



Barcina Lehendakaria bertaratutakoei hitz egiten.



Carolina González Karlos III.a  
Noblearen Gurutzea jasotzen,  
Flamarique ahizpen izenean.